OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALTZAINGOARENTZAT SUZKO ARMEN ETA DAGOKION EKIPAMENDU OSAGARRIAREN HORNIDURA KONTRATUA

PROZEDURA IREKIA OSO ERRAZTUA

-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA –

ESPEDIENTE KODEA:	2025KO050005

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Oiartzungo Udaltzaingoarentzat suzko armak eta dagokion ekipamendu osagarria hornitzea. Zehazki:
- 19 arauzko pistola erdiautomatikoak (Glock 19 Gen5, kalibrea: 9mm Parabellum)
- 38 kargadore (bi arma bakoitzeko)
- 19 segurtasun funda (3+ maila edo gehiagokoak)
- 19 bigarren kargadoreentzako funda

2. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Aurreikusitako kontratuaren arabera, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 14.888,40 eurokoa da BEZik gabe, gehi % 21eko BEZari dagozkion 3.126,56 euro, beraz, guztira 18.014,96 eurokoa da, BEZa barne.

3. HORNITU BEHARREKO ONDASUNAK ETA EZAUGARRI TEKNIKOAK

Hornitu beharreko suzko armek honako baldintza edo ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte:
- Arma mota: pistola erdiautomatikoa
- Kalibrea: 9 mm Parabellum
- Kargagailuaren ahalmena: 15
- Luzera osoa: 180 eta 190 mm artekoa
- Kanoiaren luzera: 100 eta 105 mm artekoa
- Pistolaren pisua kargagailurik gabe: 600 eta 620 gr
- Pistolaren pisua kargagailu hutsarekin: 670 eta 700 gr
- Tiragailu-sistema: Striker-fired (jaurtikako orratza) tentsio konstantearekin
- Kanpoko mailurik eta eskuzko asegururik gabea
- Armazoiaren materiala: inpaktu eta tenperaturekiko erresistentea den polimeroa
- Helduleku trukagarria
- Safe action motako barne-segurtasun sistema (3 aseguru automatiko: orratzaren asegurua, tiragailuaren asegurua, erorketaren mekanismoa)
- Kanoiaren estria: poligonala edo hexagonala
- Kargagailua: polimeroz estalitako metalezko gorputza
- Bi kargadore pistola bakoitzeko

Hornitu beharreko segurtasun fundek honako baldintza edo ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte:
- 3+ segurtasun maila

ESKU3de18e7f-ff50-4985-8e84-53286501bfeb

- Polimero edo antzeko materiala, gutxienez 4 mm lodiera
- Erabilera eskuin zein ezker
- Zorroari eusteko sistema pasiboa

Bigarren kargadorearen fundek, berriz, honako baldintza edo ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte:
- Polimerozkoa edo antzeko material gogorra
- Errematxezko goiko itxiera

4. ENTREGATU BEHARREKO AGIRIAK

Enpresa kontratistak honako agiriak entregatu beharko ditu hornitu beharreko ondasunekin batera:
- CE ziurtagiria eta segurtasun araudiaren araberako homologazioa
- Fabrikatzailearen berme agiriak
- Erabilera eta mantentze gida teknikoa

5. ENTREGATZEKO EPEA

Hornidura gehienez bi (2) hilabeteko epean gauzatu beharko da, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

6. ENTREGATZEKO LEKUA

Suzko armak, kargadoreekin, Donostiako Guardia Zibilaren Armen Interbentzioan utziko dira, Oiartzungo Udaltzaingoak jaso bitartean.

Segurtasun fundak eta bigarren kargadoreen fundak Oiartzungo Udaltzaingoaren instalazioetan entregatuko dira (Done Eztebe plaza 1, 20180 Oiartzun, Gipuzkoa).

7. KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK

Enpresa kontratistaren kontura izango dira horniduratik eratorritako gastu guztiak, hala nola garraioa, asegurua, zerga eta tasa guztiak.

8. SALMENTA ONDOKO ZERBITZUA

Hornitutako suzko armek eta ekipamendu osagarriek gutxienez bi (2) urteko bermea izango dute. Berme-epe horretan enpresak doako konponketak edo ordezkapenak bermatu beharko ditu, akats edo fabrikazio hutsegiteen kasuan.

Oiartzunen, sinaduraren egunean
Udaltzainburua
Elektronikoki sinatua

Nork Sinatua / Firmado por: XABIER GARAGARZA ROTETA - 44169157A
2025/10/27 12:44:51

EKS | CSV: ESKU3de18e7f-ff50-4985-8e84-53286501bfeb
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310